# ...eta Kitto!

2016-XII-2 995 zkia.



# Zineko argiaren sortzaile

Javier Agirresarobe

Toribio Etxebarria, 1

EUKI servicios inmobiliarios

**20 urtetik gorako esperientzia eskaintzen dizuegu**
*balorazioetan eta eraikinetako salerosketa, alokairu eta traspasorako bitartekotzan*

API

bisitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com

# MOTORTOWN

El Corte Inglés

## Zatoz eta ezagutu MOTORTOWN tailer berria.



**Konfiantzazko tailerraren zerbitzu guztiak ezagutuko dituzu**

- Berrikusketa ofizialak
- Beira-garbigailuak edo gomak aldatzea
- Olioa eta iragazkia aldatzea
- Lanparak aldatzea eta faroak doitzea
- Izotz-kontrakoa / hozgarria aldatzea
- Direkzioa lerrokatzea
- Frenoak eta freno-likidoa aldatzea
- Pneumatikoak aldatzea eta orekatzea
- Ihes-hodia, bateria eta bujiak aldatzea
- Ekipamendu elektronikoak instalatzea
- Motorrak karbonogabetzea
- Aire girotua birkargatzea
- Motelgailuak aldatzea

El Corte Inglés

**Eibar. S1 Solairua**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:** Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:** erredakzioa@etakitto.eus komunikabideak@etakitto.eus publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA**: J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Maialen Belaustegi eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.
**ISSN:** 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – XVI. Txistorra Eguneko zozketaren emaitzak –

Eibarko Txirrindularien Elkarteak antolatuta zapatuan XVI. Txistorra egunean saltzen ibili ziren errifaren zozketan, hauek izan dira saritutako zenbakiak: Lehen sari nagusia: 1017. Tarteko helmugak: 126, 759, 801, 1415, 1485. "Farolillo gorria": 8, 66, 104, 190, 201, 238, 379, 398, 414, 468, 498, 507, 526, 527, 529, 538, 539, 542, 548, 609, 623, 640, 648, 754, 756, 1001, 1010, 1033, 1041, 1054, 1093, 1104, 1107, 1249, 1360, 1413, 1418, 1433, 1451, 1476. Sari bereziak: 508 (Eibar KE), 1259 (Erreala), 1486 (Athletic), 1465 (Aspe), 1221 (Somos Eskubaloia), 601 (Amets Txurruka-Orica). Lehen erreserba: 19. Bigarren erreserba: 244.

Sariak kontsultatzeko, www.clubciclistaeibarres.org helbidean sartu. Sariak jasotzeko, berriz, abenduaren 1, 12, 13, 14 eta 15ean, 19:00etatik 20:00etara Eibarko Txirrindularien Elkartera (Pagaegi, 3) joan beharko da. Egun eta ordutegi horretan joaterik ez duenak cce@clubciclistaeibarres.org helbidera idatzi edo 943203480 telefonora deitu dezake (ordutegi horren barruan).

Eibarko Txirrindularien Elkartea

## – Erredakzioaren OHARRA –

Zubiz beteriko datorren astean ez dugu alerik izango.
Hurrengo alea hilaren 16an kaleratuko dugu.

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LEHENGO BATEN.-** Lehengoan, aurreko egun batean. *"Zelan izango dok ba! lehengo baten dotore asko ikusi najuan, barren".*

**LEHENGUNIAN.-** Lehengo egunean, lehengoan, urreko egun batean. *"Lehengunian zuen amaren basarrixan izan giñan".*

# astean esanak

"Ipar Amerikako bisontea: ba omen ziren 40 edo 50 milioi ale, zuriak iritsi arte; ia guztiak akabatu zituzten, Yellowstone parkean 50 aleko talde txiki bat utzi arte. Zergatik egin zuten halako holokaustoa? Bertako indiarrak akabatzeko, larruekin negoziatzeko, munizioa oso merkea zelako... Basamortuko elefanteak hiltzen dituzte boliarengatik, baina mesede politikoen truke. Thailandiako kalaoak hiltzen ari dira haien lumak eta mokoak saltzeko, baina gehienbat oihan tropikalak suntsitzen ari direlako ari dira desagertzen. Olioa ateratzeko palma plantazio ikaragarriak jartzen ari dira neurririk gabe. Bestalde, Antartikako pinguinoak klima aldaketaren ondorioak zuzenean ari dira pairatzen. Australian, berriz, orain dela gutxira arte krokodiloak hiltzen zituzten pertsonentzat arriskutsuak direlako. Galzorian egon zen toki askotan eta orain babestuta dago. Hori da herrialde garatu eta garapen bidean daudenen arteko alde nagusia. Elikagai ekologikoen inguruan ere kontraesanak badira: gazta ekologikoa egiten dutela esaten dute batzuek, adibidez, baina otsoa gertu izatea ez dute nahi"

(ANDONI CANELA, NATURAREN ARGAZKILARIA)

"Euskal jokalarien merkatuan sartzea oso zaila da Eibarrentzat, Realak eta Athletic-ek dauzkatelako jokalaririk onenak. Maila on honi eusteko arazoak izango genituzke euskal herritarren aldeko apustua egingo bagenu. Gure eredua ez doa etxeko jokalariekin. Oso zail ikusten dut etorkizun hurbilean Eibarrek zortzi edo bederatzi euskal jokalari edukitzea. Orain bertan Riesgo, Capa, Dani Garzia eta Arbilla fitxatu berria ditugu. Harrobiari begira ere, gure jokalari gazte onenak Realera eta Athletic-era joan dira azkeneko udan. Gure bidea da jokalariak uztea 2. eta 2. B mailako taldeei, eta uste dut bide hori egokiagoa dela guretzat"

(FRAN GARAGARZA, KIROL ZUZENDARIA)



ENRIKE ZUAZUA

## Datuen garaia

San Andres berriz, urtea bukatzear dagoenaren seinale. Eta aurtengoa gertakariz jositakoa izan da. Lurraren biraka abiadura betikoa da, baina lurrazalean geroz eta abiadura gehiagoz bizi gara den denok.
Izaniko gertari batzuk media guztietan hainbat lerro eta ordu bete dituzte: Erresuma Batuan *Brexit*-aren alde bozkatu zuten hiritarrek, Kolonbian bake-itunaren kontra, Estatu Batuetan, duela egun batzuk, Trump-en alde.
Eta guzti horietan azkenean gertatukoa aurreikuspenen kontrakoa izan da. Gure izaeraz bultzaturik, zentzuzkoena dena iruditzen zaigu beti aurrera atera behar duela. Baina ez da horrela, tamalez, ez eskala txikian, ez eta mundu mailako auzi hauetan.
Prospekzio inkesten profesionalak ere sarritan erratu dira hauteskunde eta erreferendum hauen emaitzak aurreikustean.
Zientzia aurrera doa arlo guztietan. Inoiz baino tresna hobeak ditugu. Baina ez dugu asmatzen. Zergatik? Agian jendeak ez du, ez dugu, zintzoki erantzuten egiten dizkiguten inkestei. Mesfidantza ugaritu da gure gizartean eta horrek ez die ohizko inkestei laguntzen.
Gaur egun, sarritan, sare sozialetan gardenago agertzen dira gizartearen pultsua hartzeko behar diren datuak. Han, ordenagailu edo sakelako pantaila nano baten aurrean, sarritan, erosoago azaltzen dugu gure benetako gogo eta asmoak, inork galdetu gabe. Informazioaren gizarte berriaren paradoxa galanta. Internetek ez ditu soilik gure eguneroko ohiturak aldatu, baizik eta, bereziki, gainera, gizartearen espresiorako plataformak.
Gaur egun hitzek ez diotena, sarean bildutako datuek aitortzen dute. “Big data” arlo eta jardun zientifikoa derrigor pil-pilean egon behar. Nola ez. Nola bestela egunero garen milaka milioi gizaki guztiek sortzen ditugun datuak antolatu, aztertu eta erabili?
Datuen garaian bizi gara, nahi edo ez, gau eta egun.

## Sailburu kargua hartu dau Arriolak



Iñaki Arriola sozialistak eta alkate-ohiak astelehenian zin egin zetsan Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro, Herrilan eta Etxebizitza sailburu karguari. Izendapenaren harira Arriolak egindako adierazpenen arabera, “ohorea eta erantzukizuna”, gauza bixak ekarri detsaz kargurako izendatziak. Halanda be, aurretik be, Patxi Lopez lehendakarixarekin Etxebizitza eta Garraio sailburua izan zala gogora ekarritta, “kargua ezaguna egitten jakola” gaiñeratu eban. Eusko Jaurlaritzako hamaika sailburu barrixak karguari zin egin zetsen astelehenian Ajuria Enea jauregixan. Formula tradizionalari jarraittuta, Gernikako Estatutuaren ale baten gaiñian eskuak jarritta egin zetsen zin karguari, hau da, “Euskadiren zerbitzuan” eta “legearen arabera” hartzen daben agintia “zintzo eta leialki” erabiltzia hitz emonda.

## Santa Barbara ospatuko dabe museuan

Domekan, abenduaren 4an Santa Barbara eguna ospatuko dabe Armagintzaren Museuan. Bestiak beste armagiñen zaindarixa dana goguan, Museuak ate irekixen jardunaldixa hartuko dau egun osuan eta, beraz, bisitan doiazenak ez dabe sarrerarik ordainduko. Horrekin batera, ikusgai ez daguazen armak gordeta daguazen biltegira bisita gidatuan juateko aukeria eukiko dau nahi dabenak, 10:00etan, 11:00etan eta 12:00xetan (gazteleraz, talde bakotxian 10 lagun hartuko dittue). Eta umiendako, barriz, "Barbararen Burrundara" taillarra preparau dabe (elebiduna). 20 lagunendako tokixa dago eta ordutegi jarraixan, 10:30xetatik 13.00era eskinduko dabe. Dohaiñik izango dira, baiña izena emoteko 943 708446 telefonora deittu edo museoa@eibar.eus helbidera idatzi biharko da.



## Matxismuaren kontrako zapatak

**Aurreko barixakuan Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira** hainbat jarduera berezi egin ziran gurian be. Nalua gazte feminista taldiak Untzaga plazia oiñetakoz eta mezuz betetzia lortu eban, “Plaza Bete Zapata” kale-ekintzarekin. Horrekin batera, Udaleko Berdintasun Zerbitzuak eta Eibarko Emakumeen Mahaiak antolatuta, indarkerixa matxistaren kontrako martxa eta konzentraziñua egin ziran. Eta gaurko, barriz, eraso sexualen inguruko “World kafea” antolatu dabe Isiltasuna Hautsiz alkartekuak, Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren laguntasunarekin. Ekitaldixa 18:00etatik 19:30xetara izango da, Portalean (ikastaro gelan).





## Argixekin hasi da Gabonetako kanpaiñia

**Astelehenian ekin zetsen Gabonetako kanpaiñiari herriko merkatarixak,** kaliak apaintzeko ipiñi dittuen argixak ixotziakin batera: udaleko ordezkarixak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiko dendari eta ostalarixak hartu eben parte Eibarko Bizikleta Plazan egin zan ekitaldixan eta, argixak piztu eta jarraixan, umiendako musikia eta dantza saiua eta txokolate-jana eskindu zittuen. Gabonetako argixak 47.000 euroko gastua eragingo dabe aurten (udalak 34.800 euro ordainduko dittu eta gaiñontzekua Eibar Merkataritza Gune Irekiak ipiñiko dau).

## Lehen Sorospenak DYA-ren eskutik

**DYA alkartekuak antolatuta, abenduaren 13an, 16:00etan "Nola jokatu larrialdi egoera batean?"** hitzaldixa emongo dabe, DYAk Pagaegi kalian dakan egoitzan. Duan izango dan hitzaldixa edoizeñendako egokixa da. Horrez gain, abenduaren 19tik 30era bittartian "Lehen sorospenak" ikastarua emongo dabe (18:00etatik 21:00etara) Eibarko egoitzan. Ikastaro teoriko-praktikua izango da, lehen sorospenetako oiñarrixak barneratu nahi dittuenendako egokixa. Ikastaruak 110 euro balixo dau. Informaziño gehixagorako www.DYAgipuzkoa.com begiratu, irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com helbidera idatzi edo 943 46 46 22 telefonora deittu.

## Margo eroalien inguruko taillarrak

**Hirikiten alkartekuak bixarko taillar bi antolatu dittue, Biharrian-en** (Ubitxa, 16-18). Kable barik Gabonetako postal argidunak zelan sortu ikasi nahi dabenak horretarako aukeria eukiko dau, 11:00etatik 12:00xetara, Bartzelonako Diseiñu unibersidade zentruko Jose-Antonio Llorente Sesmarekin ("Josianito"). Jarduera sei urtetik gorakuendako izango da. Eta postaletarako erabilliko dittuen margo eroaliak "street art" dalakuan zelan erabilli ikasi nahi dabenak, 12:00xetatik 16:00etara emongo daben taillarrian izango dau aukeria (14 urtetik gorako gazte eta helduendako izango da). Plaza mugatuak dira eta izena emoteko hirikiten@gmail.com helbidera idatzi biharko da.

# autuan

### Elkartasun Kafea

Ametsa taberniak, La Brasileña kafe etxiaren laguntasunarekin, "Elkartasun Kafea" izeneko kanpaiñia ipiñi dau martxan: irabazi asmorik ez daken Eibarko alkartiak izango dabe parte hartzeko aukeria, abenduaren 19rako izena tabernan emonda. Aurkezten diran guztien artian tabernakuak lau aukeratuko dittue, gero bezeruak nahi dabenari botua emoteko (abenduak 23an botuak jasotzeko buzoia ipiñiko dabe). Boto gehixen jasotzen daben alkartiak, 2017. urtian tabernan saltzen daben kafe bakotxeko 5 zentimo jasoko dittu premixo moduan.




### Urbat-en zozketia

Waterpolo Urbat Elkarteko Sanandresetako otarraren zozketan, sarixa jaso daben zenbakixa 1103 izan da (erreserbak: 2938, 3360, 2153 eta 1567). Irabazliak abenduaren 30era arteko epia dauka otarra@urbat.es helbidera idatzi eta sarixa jasotzeko.






## Sukaldari bikaiñak bakillau txapelketan

**Domekan jokatu zan Sanandresetako XXIV. Bakillau txapelketan lehen sarixa** Roberto de los Toyosek eta Agustin Agirrek (Ahaleginak) eruan eben. Bigarren sarixa, barriz, Jesus Mª Diezek eta Arturo Lazarok (Aurkakoak) osatutako bikotiarendako izan zan eta hirugarrena, Aitor Gerrikagoitiak eta Richard McElroy-k (Mendikosolo kuadrilla) eskuratu eben. Mireia Alonsok, Jesus Artolazabalek, Josu Mugerzak, Xabier Osak, Josema Azpeitiak, Aitor Buendiak eta Peio Garcia Amianok osatutako epaimahaixak sukaldari guztiak erakutsitako mailla nabarmendu eben.



## Bertso jaialdi edarra

**Aurreko domekan ospatu zan ...eta kitto! Euskara Elkartekuak antolatzen daben** Sanandresetako bertso jaialdixa eta, urtero lez, bertsolarixak pozarren laga zittuen Portalera juandako guztiak. Aurretik aurtengo bertso paper lehiaketako irabazliak euren bertsuak kantau eta sarixa jaso eben.



## Azaroaren 25a goguan

**Eibarko Ingeniaritza Eskolakuak ekitaldi berezixekin gogoratu eben** aurreko astian Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna. Berdintasun komisiñuak antolatuta, aurreko asteko astelehenian "Eraso sexistak: definiziñua eta emoziñua" taillarra eskindu eben eta barixakuan, barriz, "Women in Black" dalakua egin zan.





## Txistorra Egun arrakastatsua

**Eibarko Txirrindularien Elkarteak antolatuta, aurreko zapatuan** XVI. Txistorra Eguna ospatu zan Untzagan, goizian hasi eta gabera arte iraun eban jaixarekin. Aurtengo txotxa zabaldu eben omenduak Juanito Beraza, Markel Alberdi eta Juan Mari Lejardi "Pastor" izan ziran eta, betiko moduan, giro paregabian pasau eben eguna.



## Bakillauaren Ohorezko Kofrade

**Domekan ospatu eban Eibarko Bakillauaren Kofradixiak XXIII. Batzar Nagusixa** eta, horren harira, Jose Zugasti (eskultorea), Asier Serrano (idazlea) eta Carmen Agirre (Busca Isusi gastronomoaren alarguna) Ohorezko Kofrade izendatu zittuen Portaleko areto nagusixak hartu eban ekitaldixan.




## Errefuxiatuendako janarixa batzen

**Udalak errefuxiatueri bidaltzeko elikagaixen bilketia antolatu eban** aurreko domekarako, As Burgas Galiziako Etxearen laguntasunarekin. Untzagan bildu zittuenak Zaporeak alkartera eruango dittue, eurak errefuxiatueri bidaltzeko.

## Alazne Agirre eta Aitor Basurto (gizarte hezitzaileak)

# "Bazterketa soziala izateko arriskuan dauden gazteei laguntzen diegu"

Gipuzkoako hainbat herritan bezala, Eibarko udalak, Gizartekintza Sailaren bitartez, "Ingurune Irekiko Hezibide Programa" eskaintzen die gizarte integraziorako arazoak dituzten edo arrisku egoeran dauden adin txikikoei. Programa honetako ekintzak egin ahal izateko, Argatxako Jardiñetan zegoen lokala erabili dute azken urteotan, baina, irailaz geroztik, egoitzaz aldatu dute eta Udalak Isasi kalean (Abontza ondoan) dituen lokaletan dihardute lanean. Eskola orduetatik kanpo, arratsaldez, han izaten dira Alazne Agirre eibartarra eta Aitor Basurto mendarotarra, biak gizarte hezitzaileak, eurekin lan egiteko prest.



*– Aspaldiko programa izan arren, lan egiteko modua dexente aldatu da, ezta?*

Urteekin gizartea aldatzen joan den heinean, programa bera ere aldatzen joan da. Lehen zailtasun egoeran zeuden gazteak kalean egoten ziren, eta horregatik metodoa eurak zeuden lekuetara hurbiltzea izaten zen. Gaur egun, berriz, zailtasunak dauzkaten gazteak, esate baterako, ordenadore baten aurrean egon daitezke, etxean sartuta. Horregatik ikastetxeak dira horrelako arazoak dituzten haur eta gazteak detektatzen laguntzen digutenak. Gizartekintza Saila jartzen da ikastetxeekin harremanetan eta familiarekin hitz egin ondoren, tutoreek proposatzen dituzte gaztetxoak. Oso garrantzitsua da gurasoekin elkarlanean jardutea. Emaitzak askoz hobeak dira gurasoen parte hartzea lortuz gero.

*– Nolako arazoak izaten dituzte programa honen barruan dauden nerabeek?*

10 eta 17 urte bitarteko adin gutxikoak dira, eta dituzten arazoak era desberdinetakoak izaten dira. Arlo pertsonalean, arlo sozialean batez ere, eta batzuetan familia arloan ematen diren arazoei irtenbidea ematen saiatzen gara. Batzuetan integrazio problemak egoten dira, etorri berrien kasuan, esaterako. Batzuei etxeko lanekin ere laguntzen diegu, etxean ez dietelako jarraipenik egiten. Urtean zehar 60 bat gazte pasatzen dira hemendik. Astean behin edo birritan etortzen dira eta normalean arratsalde osoa ematen dute bertan.

*– Zelako gauzak egiten dituzue?*

Gehienetan taldeka banatzen ditugu, adinaren arabera eta bakoitzak dauzkan premien arabera. Euren gaitasunak lantzeko talde ekintzak egiten ditugu. Jarduera hauen bitartez harremanak lantzen ditugu; orain, adibidez, arte-terapiaren bitartez harremanak, emozioak eta autoestima lantzen ari gara. Artea tresna bezala erabiltzen dugu gomendioak eskaintzeko eta pautak emateko. Uda sasoian ekintza bereziak egiten ditugu, prebentzio mailakoak batez ere, euren egoera txarrera joan ez dadin eta, konplikatuz gero, beste zerbitzu espezializatuagoetara bideratzen ditugu.

*– Zailtasunak eragiten dituzten faktore konkretuak daudela esan daiteke?*

Arazoak maila desberdinetan eman daitezke, baina baldintza ekonomikoa da gaur egun bazterketarako ezaugarri estruktural bat: familia ugariak, iritsi berriak, lan prekarietatea…

---




# Arrate Sarasua Meabebasterretxea

*1. Urteurrena (2015-XI-30)*

*Handia da zuk gure etxean utzitako hutsunea.*
*Baina handiagoa da guk zuri dizugun maitasuna.*
*Beti egongo zara gure bihotzetan.*

ZURE GURASO ETA ANAI-ARREBAK

# Goiz bat Azokan

*argazkiak:*
**Maialen Belaustegi**

Argazki gehiago
etakitto.eus-eko
mediatekan






















# Argitik zetorren artisaua



## Javier Agirresarobe

### ARGAZKILARITZA-ZUZENDARIA

Javier Agirresarobe argazkilaritza-zuzendariak hitzaldia eskaini zuen aurreko barixakuan Portalean. Tartea aurkitu du aurten Asier Errasti Film Laburren Lehiaketako bere izena duten Sari banaketan egoteko, "bigarren aldiz 17 urtetan, gainontzeko urteetan kanpoan harrapatu nauelako". Pozik dago Eibarrera bueltatzen den bakoitzean eta ilusionatuta egiten duen lanarekin. Ez du inolako asmorik erretiratzeko eta, dioenez, "zinearen negozioa aldatuko bada ere, inoiz ez da hilko".

***- Hamar urte dira Los Angelesen kokatu zinela. Eibarrekin deskonektatzeko nahiko denbora...***

Inoiz ez naiz Eibartik irten, fisikoki urruti izan arren. Eta Los Angeles egoitza dut, ez besterik. Harremanetarako gunea dut han, baina 11-12 pelikuletatik bakarra egin dugu bertan. Semeak bai esan dezake han bizi dela, argazkilaritza-zuzendaria da bera.

Hona etortzearena, bestalde, proiektuen araberakoa izaten da. Hori bai, urtero hilabeteko eskapada egiten dut, denbora gehiena Donostian egiten badut ere. Eibarren egon nintzen azken aldia zapatua zen eta euria egiten zuen. Ixila nabaritu nuen, lasaiegia une hartan; geroago joan zen berotzen. Eibar beti izan da halakoa: dinamikoa eta grisa aldi berean.

***- Azken aldian bi lanetan jardun izan duzu, buru-belarri: Australian errodatu duzun "Thor 3. Ragnarok"-en, alde batetik, eta "La sonrisa etrusca"-ren bertsio berriarekin, bestetik.***

Esperientzia desberdinak izan dira guztiz. Marvel-en sagako Thor-en hirugarren proiektua handiegia da: sei hilabete eman ditut Australian, produkzio aurreko prestakuntzetan bakarrik beste bederatzi aste behar izan ditu eta errodajean beste 17 aste hartu ditu. Eta oraindik amaitu gabe dago. Makineria bateko beste elementu bat besterik ez naiz izan hor. Jose Luis Sampedroren liburuaren adaptazioak, bestalde, gozatzeko aukera gehiago eskaini dizkit bere txikitasunean.

***- Zenbatu dituzu orain arte egindako pelikulak? Zeren arabera aukeratzen dituzu proiektuak?***

Kasualitatez orain dela ez asko kontatu genituen: luzemetraiak 69 atera zitzaizki-

dan. Hori berandu hasi nintzela, 1973an, "¿Qué hace una chica como tú en un sitio como éste?" tituluarekin.

Proiektuei dagokienez, ez pentsa niri aurkeztu eta nik aukeratzen ditudala, beste barik. Orokorrean casting batera aurkeztu behar izaten naiz eta beste batzurekin lehiatu. Ez zaizkit hainbeste lan ere heltzen; agentea dut horretarako eta Skype bitartez moldatzen gara.

***- Behin zuzendari batekin lan eginda, berarekin errepikatzearen aldekoa zara?***

Ez da sintoma txarra izaten eta, bai, sortu daiteke halako konplizitate moduko bat. Imanol Uriberekin bikotea osatuz, esaterako, zazpi pelikula egin ditut. Baina arlo horretan ere gauzek buelta asko ematen dituzte eta etiketatuta geratzeko arriskua duzu. 2009an "La carretera" egin nuenean pentsatu nuen aukerako bidearekin asmatu nuela, baina asuntoa ez dago hain argi. Gero, komedia batean parte hartzen baduzu, esaterako, ikuspuntu artistikotik gutxiago baloratzen denez hor ere zaila da aurrerapausorik egitea.

***- Zelako desberdintasunekin egin duzu topo Espainiako eta Estatu batuetako zinemaren artean?***

Argazkilaritza-zuzendariaren lana interpretazio arloan aintzat zelan hartzen den, horren arabera dago koxka. AEBetan garrantzi gehiago ematen zaio duzun esperientziari, asko erreparatzen diote gainean daramazun motxilari.

***- Zelako aldaketak eman dira urte guzti hauetan zure lana aurrera eramaterako orduan? Zenbaterainokoa da digitalaren eragina?***

Jabetu behar gara beti ere oinarri bat izan behar dugula, argi-gramatika bat, eta nik ez nuke baztertuko argiaren naturaltasunari zor diogun errespetua. Lanaren egitura moldatu dezakezu, bestelako kontrasteak zor ditzazkezu, baina argiaren egiturari eutsi behar diozu derrigorrez. Erreferentzia batzuk behar izan ditut beti, baina ez du zertan gauza handirik izan: nahikoa izan daiteke argazki edo irudi bat. Gidoiak zeozer sorrarazi behar dizu, baina zuk egin behar duzu zure pelikula.

***- Eta efektu bereziekin eta horrelakoekin zelan moldatzen zara? Ez da erraza izango horietara egokitzea.***

Arrazoi duzu, ez naiz ondo eramaten efektu bereziekin. Heroi berriak dituzten pelikula guztietako planoek euren efektu bisualekin doaz. Azkenaldian konputadoreen bitartez sortu izan behar ditut giroak, komertzialtasunak bide horretatik garamatza.



*"Argiaren artisauak" aurreko barixakuan Portalean eskainitako hitzaldian, argazkilaritza-zuzendaritzan gaur egun zelan egiten den lan azaltzeaz batera, sasoi bateko analogikoarekin dauden aldeak argitu zituen. "Antologikotzat" jo zuten hitzaldia amaituta, Deporren afaldu zuen egileak antolatzaileekin zinemako munduari beste buelta batzuk emateko.*

Marvelen pelikulek arrakasta bilatzen dute eta denbora da ordaintzen dutena. Gaur egun bi lantalderekin dihardut lanean: batek nirekin dihardu eta besteak, 40 lagunekoak, ni hasi aurretik egiten du berea.

***- Horrelakorik Espainiako zineman pentsaezina izango zen, ezta?***

Jakina. Produkzioa da oinarrizkoa eta hor alde ikaragarria dago. AEBetan zinea industria kontsideratzen dute eta, kalitatea asko zaintzeaz gain, etekina bilatzen dute. Espainian, bestalde, zalantzak besterik ez daude zinearen inguruan eta giroa ere ez da sanoa. Zineak duen ezaugarri kulturala ez dute kontuan hartzen hemengo politikariek. Eta, urrutira joan gabe, Frantzian oso ondo kontsideratuta dago eta asko zaintzen dute. Zelan ez, zineak zeozer positiboaren hazia duenean, gizartean eragiteko duen indarra ahaztu barik.

***- Parte hartu duzun pelikulen artean, zeinekin geratuko zinateke?***

Teknikaren aldetik, "La carretera" izan daiteke. Lagatako arrasto komertzialarengatik, "Los otros". Montxo Armendarizen "Secretos del corazón" ere ezin dut ahaztu, pelikula horren inguruan dena bikain joan zelako, errepikaezintzat jotzeraino ia: Erronkarin garbatzea, aktoreekin ezinhobeto, gero sari-proposatzeak jasotzea... une zoragarriak benetan. Armendarizekin moduan, Imanol Uriberekin oso ondo konpondu naiz beti. Almodobar-ekin gehiago trabatu izan naiz.

***- Eta, zurea izan barik, zein pelikuletan gustatuko litzaizuke parte hartzea?***

"La noche del cazador" filmak txunditu egin nau betidanik, begirunea diot eta gustora hartuko nuen parte bertan. Filmekin badut arazoa eta da ikusle txarra naizela: argumentuari jarraitu beharrean, beste gauza batzuei erreparatzen diet eta gutxitan entregatzen naiz pelikula batera. Romaan Polanskiren filmak gustoko ditut, baita L.A. Confidencial ere.

***- Ados zaude zure lana zuzendariaren begiak izatea dela diotenekin?***

Esaldi hori erdi poetikoa, erdi kursia ere izan daiteke. Bai dagokigula berak duen ideia instrumentalizatzea, jakinik beti ere industria bateko parte zarela. Horrek laguntzen dizu zure egoa hainbeste puztu ez dadin. Zinematografikoak izan behar gara, ez besterik: gure lana ahal den hobekien egiten asmatu behar dugu.

***- Argiarekin jokatzen urte guztiotako ibilbidean, nongo paisaiekin geratzen zara?***

Bat aukeratzekotan, Kanadako Mendebaldeko Vancouver aipatuko dut. Eta guztiz kontrakoa, herrialde bereko ekialdean, Halifax-en izan ditut arazo gehien. Bestalde, zeru politenak Mexiko Berrian aurkitu ditut, Alburquerquen-eta. Hango Durangon ere western giroko paisaia asko daude.

***- Zelan ikusten duzu euskal zinea?***

Badago itxaropentsu izateko motiborik eta indartsu aurreikusten dut, baita euskarazko zinea ere. Oscarretara joateko atarian izan dugu filme bat orain dela gutxi. Bestalde, Donostiako Zinemaldia ere aparretan dago Rebordinosekin, badu fedea. Gero eta gazte jende gehiago mugitzen da hor. Eta zine-aretoetara hainbeste ez bagara joaten ere, inoiz baino pelikula gehiago ikusten ditugu gaur egun: izan telebistan, izan beste euskarrietan.




# Hemen da Durangoko Azokarik goiztiarrena

### Areto Nagusia

Azokako partaideen zabalkunde lanen aurkezpenek eta Gogoetaren Plazako solasaldi eta mahai-inguruek osatzen dute Areto Nagusiaren programazioa. Zabalkunde lanei dagokienez, guztira 45 aurkezpen edukiko ditugu, denetarikoak: Lehenengo Mundu Gerrari buruzkoak, hizkuntzaren ingurukoak, foballaren gainekoak etabar interesgarri bat.

### Ahotsenea

Urtero bezala Ahotseneak 2016ko diskoen eta liburuen aurkezpenak hartuko ditu. Zuzenekoen karpan 70 musikarik eta musika-taldek aurkeztuko dituzte beren lanak kontzertu formatuan. Solasaldien gunean, aldiz, 50 sortzailek baino gehiagok egingo dute (idazleak gehienbat, baina baita musikari zenbait ere), hainbat formatutan: solasaldia, mahaingurua, errezitaldia, ikuskizuna, emanaldi akustikoa…

Eta, betiko lez, bide luzeko sortzaileek sortzaile hasiberriekin konpartituko dute eszenatokia. Gatibu, Kokein, Revolta Permanent, Labrit, edo Etxerekin batera, Kohatu, Zazkel, Rukula, Magnetico Grupo Robot edo Errime jardungo dira. Eta berdin idazleak. Ahotseneatik hamaika idazle pasatuko dira: Arantxa Urretabizkaia, Asier Serrano, Aitziber Etxeberria, Kirmen Uribe, Miren Gorrotxategi, Patxi Larrion, Mariasun Landa... Iparraldetik ere hainbat egile izango dira bisitan. Zuzenekoetan: Tristtan Mourguy, Xabaltx, Otxalde, Arramazka, Bidaia, Begiz-Begi, Pier Paul Berzaitz... Eta idazleak: Erich Dicharry, Amaiur Blasco..

### Saguganbara

Irudimenez betetako lekua da Saguganbara. Euskal kulturaren transmisiorako gunea, hizkuntzarekin jolas egitekoa. Ideia horren bueltan, egitarau anitza eta oparoa prestatu dute edizio berri honetarako: programazioa, ikasleentzako tailerrak, ikuskizunak, ipuin kontaketak, aurkezpenak, ikusgarri musikalak, sormen tailerrak…

Guztien artean bat azpimarratzekotan, arduradunek "Talentue plazara!" egitasmoan ipini nahi dute indarra: *"Aurtengo nobedadea nagusia izateaz gain, Saguganbararen azken denborako helburu batekin bat egingo du: haur eta gazteak bihurtzea protagonista eta eurak jartzea sormenaren erdigunean. Ildo horretatik, diziplina artistiko ezberdinetan aritzen diren ume eta gaztetxoei lekua egingo diegu eszenatokian. Aurten Durangaldeko 4 talde gonbidatu ditugu; antzerki eta musika esparrutako talde bana, euskara ikasleak eta dantza taldea".*

### Plateruena

Kontzertu handienak Plateruenan izaten dira, Landako itxi eta gero. Gaur Willis Drummondekin hasiko da aurtengo programazioa, bihar Zea Mays taldeak joko du, etzi Hesian taldearen txanda izango da eta 5ean Skakeitan arituko da. Sarrerak Plateruenaren webgunean eta txarteldegian daude salgai. Programazioa doako kontzertu batek itxiko du, Bide Ertzean taldearenak, abenduaren 6an.

### Irudienea

Ikus-entzunezkoen unibertso anitza izango da ikusgai: film luze eta laburrak, fikzio-esperimentalak, dokumentalak, haurrentzako zinema, mahai inguruak, solasaldiak eta tailerrak. Luzeen atalean "Igelak" filmaren estreinaldia egingo da, zuzendari eta aktoreek aurkeztuta; dokumentalen atalean, berriz, "Jotamentala", euskal dantzen ingurukoa, "Gutik Zura", egurrak eta euskal basoen ingurukoa; eta "Irrintziaren Oihartzunak", Iratxe Fresnedaren dokumentalaren estreinaldia ere hartuko du, beste hainbatekin batera.

### Szenatokia

Arte eszenikoen gunea eta, beraz, antzerkigile, antzezle eta antzerki zaleen topalekua. Hiru plater nagusi izango dira aurtengo programazioan. Batetik, Xake produkzioen "Mami Lebrun" antzezlana (abenduaren 4an). Hurrengo egunean, antzerki maratoia egingo da goiz eta arratsaldez: zortzi antzerki taldek euren azken lanaren zati bat taularatuko dute eta gero publikoarekin iritziak elkartrukatzeko tartea izango da. Azken egunean, abenduaren 6an "Francoren bilobari gutuna" antzezlanarekin gozatzeko aukera izango da.

### Kabi@

Kabi@ kultura eta eduki libreen gunea da, kultura digitalaren eremuko sortzaile, enpresa, web garatzaile eta ekintzaileen topaleku. Iazko moduan, Areto Nagusi ondoan egongo dira. Egunero goiburu ezberdin baten bueltan egituratu dituzte aurkezpen, solasaldi eta mahai-inguruak.

### Azoka TB

Azokak irauten duen egunetan eta ordutegian emisio jarraitua eskainiko du euskarazko tokiko telebistetan (eta streaming bidez www.durangokoazoka.eus webgunetik). Hala, bost egunez martxan izango den kanal tematikoa izango da honakoa, Euskal kulturaren gaineko edukiekin osatua 100%ean.

### Ahozko ondarea eta gehiago Badihardugu-ren eskutik

Badihardugu Euskara Elkarteak ahozko ondarearen bilketan dihardu bere sorreratik eta herri hizkerak ere jasotzen ditu, Euskal Herriko Ahotsak (www.ahotsak.eus) proiektuari esker. Euskalkien eta




*Ego Ibarrak aurten argitara eman duen Santiago Arizmendi-arrietaren liburua izango da berritasuna Badiharduguren stand-ean.*

ahozko ondarearen inguruko argitalpenekin datu-basea ere sortua du, webgunean bertan. Durangoko Azokan ere, Euskal Herri osoko ahozko ondarearen inguruko lanak eta lan dialektologikoak eskaintzen ditu urtero: Antzuolako hizkera, Aramaioko euskara, Mallabiko euskara, Bergara aldeko hiztegia, Eibarko euskara, Ordiziako euskara, Derioztarren euskara, Urretxu-Zumarragako euskara, Zaldibar berbarik berba, Zarautz hizketan, Biarnoko euskaldunak, Gipuzkoa Hegoaldeko euskara, Elorrixoko berbetia…

Horretaz gain, Badihardugu Elkarteak berak kaleratutako lanak ere eskaintzen ditu (www. badihardugu.com/argitalpenak). Hona hemen, lan horietako batzuen aipamena:

*- Deba Ibarreko Aditz-taulen Bilduma:* eskualdeko adizkiak jasotzen dituzten aditz-taulak osatu eta kaleratzeko proiektua. Eskualdeko 17 herrietatik gehienetan egin da dagoeneko adizkien bilketa: Oñati, Eibar, Elgoibar, Bergara, Antzuola, Soraluze, Elgeta, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Aramaio, Mallabia eta Ermua. Kaleratutako azkena Arrasatekoa izan zen.

*- Deba ibarreko euskara.* Dialektologia eta Tokiko batua. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren artean dago Deba ibarra, eta bertako euskaran ere ezagun da kokagunearen eragin hirukoitza. Hizkera interesgarri hori erakusten da liburu honetan eta, aldi berean, euskalkiak lantzeko eta erabiltzeko irizpideak aurkezten dira. Beste bat da, dena dela, saioaren berrikuntza nagusia: lehen aldiz, Tokiko batuen adibidea plazaratzen da. Deba ibarreko ikastetxe, euskaltegi, lantegi, hedabide eta udaletxeetan, euskara batua erabiltzeko orduan, bertako zein ezaugarriz hornitu azaltzen da. Erabakien arrazoiak ere agertzen dira, beste alderdi batzuetako euskaldunei eredua edo, behintzat, zeri heldua eskaintze aldera.

*- Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak.* Deba ibarreko euskaldunek, batez ere ume eta gazteek, euskaraz berba egitean dituzten akats ohikoenak zuzentzeko asmoz sortu zen liburua. Hizkuntza




transmititzaile jantzienei bideratuta dago, batez ere (irakasle, guraso gazte, monitore...). Alde batetik eurek ere egin ditzaketen akatsak zuzentzeko, eta bestetik eurek bete dezaketen zuzentzaile-lanean baliagarri izan dakien. Helburu horrekin, alde batetik, akatson azalpen gramatikala eta ordezko zuzenak eskaintzen zaizkie; bestetik, akatsok zuzentzen laguntzeko ariketa multzo bat. Liburuak marrazkiak ditu, gazteentzat erakargarri izan dadin. Akats bakoitza bere testuinguruan azaltzen da.

Aurtengo eskaintzan, bestalde, berritasuna Ego Ibarra batzordeak aurten argitara eman duen "Mis memorias. La guerra civil española: 20 meses prisionero" Santiago Arizmendiarrietaren liburua izango da. Beraz, nahi duenak Badiharduguren postuan lan hori eskuratzeko aukera izango du.




Tarte bat Tarten

tarte

ZABALA KAFEAK

**Zatoz gu ezagutzera iragarki honekin eta**
**KAFE BATERA GONBIDATUKO ZAITUGU!**

*Eskaintza indarrean egongo da astelehenetik ostiraletara (jaiegunak kenduta), 13:00etatik 16:00ak arte.*

# osasun gida

## Dentistak

**arat**
Hortz-Klinika
*ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA*



*Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura*

**Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...**
Clínicas dentales UniverSalud
TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. esk. Telf: 943 20 18 51

IRAZABAL
clínica dental
**Irribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

RPS: 53/13
bista eder
clinica dental - hortz klinika
**Asko dira**
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE**
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT
Bista Eder, 19 943 70 00 82

**hortz-klinika**
***B. IZAGIRRE***
**clínica dental**
EGUNERO
Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
***Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896***

**EIBAR** HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL
MAITANE G. IÑIGUEZ
Zerbitzu guztiak klinika berberan
San Agustín, 4 behea ezk.
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

9 urte zurekin Eibarren
25 prestazio doan zuretzako
VITALDENT
*Konpromisoa*
San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

**Pedro Etxeberria Gisasola**
**DENTISTA**
09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO
Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi
Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia
Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90

## Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**
**ERREHABILITAZIOA**
- *Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala*
- *Min-Unitatea*
- *Inkontinentzia urinarioak*
- *Kirol medikuntza*
- *Ama izateko prestakuntza*

Muzategi 2 (EIBAR) Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika



abontza
clínica estética
Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad
**MEDIKUNTZA** ESTETIKOA
**KIRURGIA** ESTETIKOA
Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapeutak

FISIOTERAPIA ZENTRUA
ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
Arragueta, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

## Logopedak

**AHOTS-LAN**
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

**Diagnostikoa eta tratamendua**

Degluzio atipikoa — Arreta arazoak
Disfonia — Berba arazoak
Ikaste-arazoak — Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

---

**Berba** logopedia
AIDA CORTA ANTÓN
SAN AGUSTIN, 2-4 (B LOKALA)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:
- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

## Okulistak

**Oftalmologoak**
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**
ARRATSALDEZ
San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

---

**Recalde**
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

- **Katarata ebakuntzak (lente multifokalarekin)**

R.P.S. 234/13
Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia
T. Etxebarria (Dos de Mayo), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

---

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

**PODOLOGOA**
**Erdiko klinika**
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

---

**PODOLOGOA**
Maider Lopez Etxeberria
Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88
65 Kolegiatu zbkia.

---

**PODOLOGO**
T.ORTOPEDICO
*Iñaki Rivero Zabaleta*
Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)
Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA
BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

**Coro Ortíz de Urbina**
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)
- Masterra Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

**Maialen Hernandez**
PSIKOPEDAGOGOA
Tel. 605 75 75 06
- Lengoaia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

---

SEXOLOGIA ZENTROA
**Arantza Alvarez**
Psikologoa-Sexologoa
1517 – GZ Kol. zkia.
www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88
KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia

---

**AROR**
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
(Ume eta helduendako)
***Ana Artamendi***
- *Afasiak*
- *Dislexiak*
- *Disfoniak*
- *Hizmoteltasuna*
- *Dislaliak*
- *Eskola arazoak*
- *Degluzio atipikoa*

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

---

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA
943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B,1° 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

---

*Lorena Izaguirre Garcia*
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA
Errebal, 15 - 1. ezk.................EIBAR
Zuberoa, 4.......................ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

---

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa
*Oscar Mondragon Lili*
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023

---

***HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...***
***... deitu 943-206776 telefono zenbakira***



# osasun DOSIAK



iñaki elortza
BOTIKARIA

## Gripearen txertoa

**Urriaren 17an hasi eta abenduaren 17an bukatuko da aurtengo gripearen aurkako txertatze kanpaina.** Beraz, egun gutxi batzuk geratzen zaizkizu oraindik txertoa behar izanez gero. Txertoa 65 urtetik gorakoei, diabetesa edo beste gaixotasun kronikoren bat dutenei, emakume haurdunei eta osasun langileei zuzendua dago. Txertatzea benetan erreza da, nahikoa duzu zure osasun zentrora deitu edo joaterekin eta bertan emango dizkizute argibide guztiak.
Arrisku talde hauetan ez bazaude eta txertoa alde batera utzita gripea edota katarro arrunta ekidin nahi badituzu, badaude hartu ditzakezun neurri xinple batzuk.
Alde batetik, elikadura zaintzea. Hotza etortzearekin batera, jende askok entsalada eta fruituak jateari uzten dio. Jarrera horrek behar ditugun mikro-elikagai guztiak bermatzea zailtzen du. Garrantzitsua da barazki gordin eta fruituak urte osoan jatea gure defentsak indartsu mantentzeko. Zereal integralek ere defentsetarako hain garrantzitsuak diren B taldeko bitamina asko emango dizkigute.
Beste alde batetik, higienea zaindu. Eskuak garbi eduki,



ahoa zapi batez estali eztula edota dominististiku egiterakoan, edalontziak ez partekatu, etab. Neurri txiki hauek oso eraginkorrak dira gripea edo katarroak ekiditeko.
Bukatzeko, badira sistema immunologikoaren bizigarri diren konplementuak ere. Etxinazea, propoleoa, homeopatia edota aromaterapia lagungarri izan daitezke gure osasuna zaintze aldera.

## Abenduak 1: HIESaren aurkako nazioarteko eguna



arantza alvarez
SEXOLOGOA

**Jendea HIESak eragindako infekzioaren arazoarekiko eta dituen ondorioekiko** sentikor bihurtzea bilatzen da egun horren bitartez. Prebentzio eta kontroleko neurriak areagotzeko premia gogoratzeko eguna ere bada, tratamendurako eskubidearen aldekoa eta HIESa dutenen diskriminazioaren kontrako aldarrikapenak ahaztu barik.
2007. urtetik hona Euskadin HIESaren gaineko datu epidemiologikoak ditugu. Azken urteetan HIEsaren kasuek behera egin badute ere, ez da gauza bera gertatu GIB edo VHIaren kasuekin; zenbakiak nahiko egonkor mantentzen dira, urtean 200 kasu berrirekin. Beraz GIB edo VHIak oraindik hor jarraitzen du.
Urtero ematen diren 200 kasu berri horiek argi eta garbi erakusten dute prebentzioan dagoela arazoa. Komunikabideetan ez da arazoari buruz lehen bezala hitz egiten, jadanik ez dira ikusten HIESak eragindako heriotzak. Ikerkuntzek aurrera egin dute, eta, gaur egun dauden tratamenduei esker, lehenengo munduan persona seropositiboek ez dute HIESa garatzen. Pentsa daiteke infekzioari beldurra galdu egin diogula. Seropositiboa izatea ez zaigu hain larria iruditzen orain. Eta honek arazoa jadanik ez dela arazo bat pentsarazten du, eta hori irudi faltsua da.
Baina seropositiboa izatea ez da txantxetako gauza. Aldizkako analitikak egin behar dira birusaren eboluzioa kontrolatzeko eta, degradazio kasuetan, ahalik eta lehen lanean hasteko; birusa aktibatzen baldin bada, horri aurre egiteko tratamentu batekin hasi behar izaten da. Gainera, kondoiaren erabileraren kontua dago; betirako erabili behar da seroposibitatearen kasuan, GIB edo VHIaren transmisioa ekiditeko eta birusaren aktibazioa eragin dezaketen berrinfekzioak ekiditeko.
Gizarte arloan dago pisurik handiena, oraindik gai honek sortzen duen beldurrarengatik. Badaezpada, ez da publikoki azaltzen seropositibitate izaera. Beldurra zaio gizarte bazterketari. Gogoratu birusa odolean, esperman eta bagina-sekrezioan konzentratzen dela; soilik fluido horietan ematen da konzentrazio nahikoa gorputz batetik bestera transmititu ahal izateko. Eta gogoratu odolera sarbide bat egon behar dela. Ez da nahikoa fluido horien kontaktu sinplea azalarekin edo zauririk gabeko mukosekin.
Ezin da beldurrarekin bizi, baina beharrezkoa da babes kontzientea izatea.

IRAKURTZEKO: *"Píldoras Azules" komikia, Frederik Peeters (Ed. Astiberri)*

# sex KONTUAK



# Asier Cuevasek min hartu zuen 100 kilometroko Mundialean

**DONOSTIAKO MARATOIA**

| | | |
|---|---|---|
| 22 | Pello Osoro | 2:35:47 |
| 187 | Liher Prieto | 2:55:24 |
| 373 | Iñaki L. Gereñu | 3:00:54 |
| 454 | Igor Atxa | 3:05:57 |
| 525 | Pello Berrizbeitia | 3:09:29 |
| 537 | Eneko Laskurain | 3:09:59 |
| 538 | Iosu Lahidalga | 3:10:06 |
| 586 | Igor Gomez | 3:11:48 |
| 629 | Jon Zubia | 3:14:24 |
| 887 | Aitor Oiarzabal | 3:22:39 |
| 987 | Santiago Santamaria | 3:25:56 |
| 996 | Juan Luis Azkune | 3:26:09 |
| 1.233 | Eduardo Uribe | 3:32:29 |
| 1.427 | Fermin Murillo | 3:39:01 |
| 1.453 | Ane Ziaran | 3:39:47 |
| 1.475 | Aitor Zubikarai | 3:40:36 |
| 1.726 | Ibon Arizaga | 3:51:07 |
| 1.826 | Javier Varona | 3:55:06 |
| 1.831 | Ariane Zubia | 3:55:21 |
| 1.952 | Alejandro Telleria | 3:59:49 |
| 1.981 | Juan Jose Malvar | 4:00:29 |
| 2.036 | Luis Manuel de Blas | 4:02:58 |
| 2.466 | Laura de Corpa | 4:41:39 |

**MARATOI ERDIA**

| | | |
|---|---|---|
| 46 | Iñigo Trokaola | 1:17:20 |
| 160 | Igor Fernandez | 1:25:02 |
| 278 | Jose Ramon Fernandez | 1:29:36 |
| 352 | Juan Zubiaurre | 1:31:51 |
| 488 | Luis Carrasco | 1:36:19 |
| 1.218 | Ivan Aldalur | 1:53:00 |
| 1.292 | Eduardo Alvarez | 1:54:41 |
| 1.295 | Borja Guerrero | 1:54:48 |
| 1.341 | Roberto Gallego | 1:55:50 |

**10 KILOMETROAK**

| | | |
|---|---|---|
| 251 | Aitor Fernandez | 0:47:39 |
| 477 | Enrique Legaristi | 0:53:57 |
| 557 | Oscar Rodriguez | 0:55:59 |
| 558 | Juan Zubiaurre | 0:55:59 |

Murtziako Los Alcazaresen aurreko domekan jokatu zen proban eibartarrak iskioa apurtu zuen baldosa bat zapaldu zuenean eta lasterketa bertan behera laga behar izan zuen 40 kilometro eginak zituenean. Modu horretan, iaz lortutako bigarren postua ezin izan zuen errepikatu oraingoan Hideaki Yamauthi japoniarrak irabazi zuen lasterketan; azken horrek egindako denbora (6 ordu, 18 minutu eta 22 segundo) bikaina izan zen.

Txapelketa horretaz aparte, Open froga ere izan zen Los Alcazaresen eta hor Klub Deportiboa ordezkatzen parte hartu zuen Aitor Bolinagak 8h59'19''-ko denbora egin zuen. Ia bederatzi ordu geratu barik!

**Osoro eta Malvar Gipuzkoako maratoiko txapeldunak**

Bestalde, Donostiako Maratoiaren hitzorduan guztira 36 eibartar helmugaratu ziren: 23k Maratoia osatu zuten, bederatzik maratoi erdia eta lauk 10 kilometroko proba. Euren artean, Pello Osorok seniorretan (2h35'45'') eta Juan Jose Malvar-ek 60 urtetik gorako beteranoetan (3h56'11'') Gipuzkoako txapela jantzi zuten. Guztira, 2.827 atleta izan zituen Maratoiak, 2.168 Maratoi erdiak eta 852, 10 kilometrokoak. Irabazleak Hosea Kipromo keniarra eta Marisa Casanueva maratoian, Fredrik Uhrrom eta Cecilia Norrbom maratoi erdian eta Johan Wallden eta Danielle Hodgkinson 10 kilometrotan.



## Bihurri eta Daniel Vicente nagusi San Andres aizkolari torneoan

**Ernesto Ezpeleta "Bihurri" eta Daniel Vicente seniorretan eta Jauregi eta Kortxero infantiletan nagusitu ziren** eguaztenean jokatutako aizkolarien Policlinica Gipuzkoa Torneoaren bosgarren edizioan. Guztira hamar aizkolari izan ziren parte hartzen aipatutako torneoan eta eibartarrak eta Vicentek aurrea hartu zioten Iñaki Kintanak eta Zubizarretak osatutako bikoteari, eta hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuten Goizeder Beltza eta Alex Txikon mendizalea. Gazteenen artean, bestalde, Jauregi eta Kortxero Agirre eta Hodei Ezpeleta baino azkarrago ibili ziren euren lana amaitzeko. Sari banaketan izan zen Sonia Roussel Policlinica Gipuzkoako asistentzia-zuzendaria.

## Ipuruako gimnastak garaile Gasteizen Murtziara joan bezperan

**Gaur eta bihar bost zintekin egingo duten ariketekin lehiatuko dute Ipuruako senior taldeko** ordezkariek Murtzian jokatuko den taldekako Espainiako Txapelketan. Elene Varelak, Elena Sudupek, Nahia Arguizek eta Malen Txurrukak aurten debutatuko dute maila absolutuan, iaz oinarrizko Espainiako Txapelketan zilarrezko domina irabazi eta gero. Jennifer Hernandezek osatuko du boskotea. Txapelketa horrekin amaituko da taldekako denboraldia eta, ondo prestatuta dauden seinalea eman zuten aurreko zapatuan, Gasteizeko Beti Aurrera klubak entolatzen duen Almudena Cid Saria bereganatuta.





## Aitor Hernandez berriro irabazle

**Orain dela aste bi La Garrigako 2. Ziklokrosa irabazi eta gero, azken probetan** Ermuko txirrindulariak ezin izan du podiumaren gorenera igo. Oraingoan, baina, eta Katalunian berriro, garaipen bikoitza lortu du: V Gran Premi Ciutat de Vic bereganatu zuen zapatuan eta Joan Soler Saria Manlleun domekan. Hasieratik nagusitu zen Specialized-Ermua Impulsoko txirrindularia Vic-en, aurkariei gero eta tarte handiagoa kentzen zieten bitartean eta, probaren amaieran, Oscar Pujol 26 segundora helmugaratu zen eta Isaac Simon 37ra. Eta domekan jokatutako Espainiako Koparako seigarren proban, orain arte bere borreroa izan den Ismael Estebani hartu zion aurrea: hau 26 segundora helmugaratu zen eta Felipe Orts hirugarrena minutu eta 22 segundora. Esteban kantabriarrak lider jarraitzen du Kopan eta Aitor bigarren da, 19 puntura. Orain Basque Country Challengea da lehen helburua Ermukoarentzat.





## Altuna-Rezusta garaile Astelenan

**San Andres egunean Eibarko Katedralean jokatutako partidu nagusian** gipuzkoarrek osatutako bikoteak 22-11 irabazi zion Irribarriak eta Zabaletak osatutakoari. Urdinez jantzitakoak gehiago izan ziren norgehiagoka guztian. Jaialdiko lehenengo partiduan Mendizabal antzuolarra eta Tolosa ere gehiago izan ziren Jaka eta Merino baino, 22-12ko markagailuarekin. Azken partiduan Jaunarena-Irusta bikotea nagusitu zen (18-14) Retegi Bi-Martijeren aurrean. Bestalde, Klub Deportiboko pilotarien jokoa ikusteko aukera izango da gaur Astelenan, 19:15etik aurrera: infantil mailako Gipuzkoako Errendimendu Txapelketan, Sanchezek Soraluzeko ordezkaria izango du aurkari eta Azkargortak Zazpi Iturri klubekoa.

Osasunagure eskuhartzeko unea da






Sukaldatu gabe ez dago osasunik




ZALOA OTADUY Farmazialaria &
Masterra Dietetika eta Nutrizioan

ELIKADURAren bitartez
OSASUNA zaintzeko IKASTAROAK

Toribio Etxebarria, 18 604 203 524 / 943 702 923

AURREKO ASTEBURUKO
# emaitzak

**FOBALLA**
**1. Maila**
Eibar 3 Betis 1
**Emakumezkoen 2. Maila**
Eibar 2 Tacon 1
**3. Maila**
CD Vitoria 2 Lagun Onak 1
**Emakumezkoen Lurralde Maila**
Zumaiako 1 Eibar 1
**Erregional Gorengoen Maila**
Eibar Urko 2 Idiazabal 0
**1. Erregionala**
Eibartarrak 2 Arizmendi 1
JUBENILAK
**Ohorezko Maila Nazionala**
Santutxu 0 Eibar 1
**Ohorezko Maila**
Eibar 4 Amaikak Bat 0
**1. Maila**
Ikasberri B 4 Urki B 3
Urki A 4 Mondragon 0
KADETEAK
**Euskadiko Liga**
Eibar 1 Danok Bat 1
**Ohorezko Maila**
Orioko 1 Eibar 1
Urki 2 Lagun Onak 6
**1. Maila**
Urki 4 Bergara 1
Aretxabaleta 5 Eibartarrak 0
**Nesken Ohorezko Maila**
Eibar 1 Añorga 0

**FOBALL-ZALETUA**
**KirolBet Liga**
L.P. Machado Tankemans 1 Alkideba 4
Sporting 1 Bar Txoko 3
Ipur Sagardotegia 0 Azkena Adahi 5
Durango 4 Kontent 0
Garajes Garcia 5 Slow XOK 1
Bar Areto 1 Bar Arkupe 1
Esmorga 0 Bar EzDok 1

**ARETO-FOBALLA**
**2. B Maila**
Zierbena 7 Concepto Egile 2
KADETEAK
Debabarrena 5 Zarautz 2

**ESKUBALOIA**
**1. Nazional Maila**
Ereintza 24 Somos Eibar 25
**Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa**
Avia Eibar Eskubaloia 25 Leizaran 23
**Gipuzkoako 1. Maila**
Haritza Eibar Eskubaloia 22 Urola 20
JUBENILAK
**Euskadiko Txapelketa**
Indupime Basauri 22 Tekniker Eibar 26
**Gipuzkoako Txapelketa**
Urola Alai 30 Eibar Eskubaloia 27
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**
Egia 28 Avia Eibar Eskubaloia 26
KADETEAK
**Euskadiko Txapelketa**
Indupime Basauri 35 Tekniker Eibar 31
**Gipuzkoako Txapelketa**
Eslaban Eibar 22 Aloña Mendi 34
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**
Ereintza 25 Avia Eibar Eskubaloia 15

**ERRUGBIA**
**Ohorezko B Maila**
Campus Ourense 52 Eibar Rugby 14
**18 urtetik behera**
Atletico SS 48 Avia Eibar Rugby 5
**16 urtetik behera**
Txingudi 31 Avia Eibar Rugby 12

**SASKIBALOIA**
**Euskal Herriko 1. Maila**
AIB 48 Katu Kale 63

**WATERPOLOA**
**Euskal Herriko 1. Maila**
Urbat Urkotronik 15 Portugalete B 4
**Euskal Herriko 2. Maila**
Urbat Urkotronik 16 Lautada 14
**Nesken Euskal Herriko 1. Maila**
Urbat 3H 13 Lautada 7
KADETEAK
Urbat Urkotronik 12 WP Navarra 5

**PILOTA**
**Profesionalak Astelenan**
Mendizabal III/Tolosa 22 Jaka/Merino 12
Irribarria/Zabaleta 11 Altuna/Rezusta 22
Retegi Bi/Martija 14 Jaunarena/Irusta 18




# KIROL AGENDA ETA EMAITZAK
# www.etakitto.eus-en

**Kirolzaleendako zerbitzu berezia eskaintzen dihardugu denboraldi honetan, gure web orrian kontsultatu dezakezuena.** Horrela, **barixaku goizerako** asteburu horretan izango diren neurketak eta horien ordutegiak jasotzen dituen KIROL AGENDA duzue eskura, eta baita **astelehenero lehen orduan** asteburuan izandako emaitzen berri jasotzen dituen ASTEBURUKO EMAITZAK ere. Informazioari dagokionez, helduen partiduetatik hasi eta gazteen mailetakoetaraino jasotzen ditugu, jubenilak, kadeteak, infantilak eta alebinak tartean.

Azken asteburuko emaitzei errepasoa eginez, **foballean** 1. Mailako Eibarrek Betisi irabazi zion eta, horrez gain, baita Sporting-i ere (1-2) Errege Kopan. Bide horretatik jarraitu nahiko du etzi, San Mames berrian ezustekoa emateko prest. 2. Mailako nesken taldeak Ipuruan hartu zuen Tacon Madrilgo talde handia lagunarteko partiduan eta baita irabazi ere aurkari indartsuari. CD Vitoria filialak 3. Mailako lidergora egin du jauzia eta igotzeko kanporaketetan izateko aukerak dihardu batzen. **Areto-foballean** Concepto Egilek ezin izan zuen ezer egin Zierbenan eta bosgarren da sailkapenean. Kadeteen Debabarrena bigarrena da eta Eskoriatza liderra hartuko du domekan. **Eskubaloian** Somos Eibarrek mailari eusteko garaipen garrantzitsua eskuratu zuen Errenterian eta Trapagaran hartuko du bihar Ipuruan, Haritzak ere Urolari irabazi zion eta, emakumezkoen Euskadiko Txapelketan, Avia Eibar Eskubaloia sailkapeneko hirugarren postura igo da. **Errugbian** mutilen senior taldeak larri jarraitzen du sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko ahaleginean, nesken taldeak, denboraldi bikaina eginez, hirugarren dagoen bitartean. **Saskibaloian** Katu Kale jaun eta jabe da oraingoz 3. Mailan eta denboraldi honetan oraindik ez du partidurik galdu. Eta zer esan **waterpoloko** taldeei buruz! Aurreko asteburuan plenoa egin zuten berriro, hasi senior mailako mutilen eta nesken taldeetatik eta harrobiko infantiletaraino iritsita. Pilotan, bestalde, jaialdi bikaina izan zen San Andres egunean Katedrala erdiraino bete zen egunean. Han izan zen Miguel Gallastegi handia ere.



*Herriko waterpolo taldeek gero eta jarraitzaile gehiago izaten dituzte.*

ASTEBURURAKO
# kirol agenda

**FOBALLA**
**1. Maila**
Athletic - Eibar (domeka, 16:15)
**Emakumezkoen 2. Maila**
Eibar - Athletic (domeka, 12:30)
**3. Maila**
Santurtzi - CD Vitoria (domeka, 11:15)
**Emakumezkoen Lurralde Maila**
Eibar - Ilintxa (domeka, 11:00)
**Erregional Gorengoen Maila**
Mondragon - Eibar Urko (zapatua, 16:00)
**1. Erregionala**
Urki - Bergara (zapatua, 17:30)
Antzuola - Eibartarrak (zapatua, 16:00)
JUBENILAK
**Ohorezko Maila Nazionala**
Eibar - Alaves (zapatua, 16:00)
**Ohorezko Maila**
Elgoibar - Eibar (zapatua, 16:00)
**1. Maila**
Urki B - Elgoibar (zapatua, 18:00)
Urola - Urki A (zapatua, 16:00)
KADETEAK
**Euskadiko Liga**
Olarizu - Eibar (zapatua, 12:00)
**Ohorezko Maila**
Eibar - Zarautz (zapatua, 13:30)
Elgoibar - Urki (zapatua, 11:00)
**1. Maila**
Arrasate - Urki (zapatua, 10:00)
Eibartarrak - Bergara (zapatua, 15:30)

**FOBALL-ZALETUA**
**KirolBet Liga**
Txoko - Azkena Adahi (zapatua, 09:00)
Durango - Bar EzDok (zapatua, 09:00)
Areto - Garajes Garcia (zapatua, 10:30)
Sporting - Slow XOK (zapatua, 12:00)
Ipur Sagar. - Tankemans (domeka, 09:00)
Kontent - Bar Arkupe (domeka, 09:00)
Esmorga - Alkideba (domeka, 10:30)

**ARETO-FOBALLA**
**2. B Maila**
Conc. Egile - Ibarra (domeka, 12:30)
KADETEAK
Debabarrena - Eskoriatza (dom., 10:30)

**ESKUBALOIA**
**1. Nazional Maila**
Somos Eibar - Trapaga (zapatua, 19:00)
**Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa**
Legazpi - Avia Eibar (zapatua, 19:15)
**Gipuzkoako 1. Maila**
Ereintza - Haritza Eibar (zapatua, 16:00)
JUBENILAK
**Euskadiko Txapelketa**
Tekniker Eibar - Urduliz (domeka, 11:30)
**Gipuzkoako Txapelketa**
Ordizia - Eibar Eskub. (zapatua, 16:00)
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**
Irureta - Avia Eibar (zapatua, 16:00)
KADETEAK
**Euskadiko Txapelketa**
Tekniker Eibar - Urduliz (domeka, 10:00)
**Gipuzkoako Txapelketa**
Salleko - Eslaban Eibar (domeka, 12:00)
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**
Avia Eibar - Aiala (zapatua, 16:30)

**ERRUGBIA**
**Ohorezko B Maila**
Eibar Rugby - Uni Bilbao (zapatua, 16:00)
**Emakumezkoen Euskal Liga**
La Unica - Eibar Rugby
**18 urtetik behera**
Eibar Rugby - Garabi Ordizia
**16 urtetik behera**
Eibar Rugby - Garabi Ordizia

**SASKIBALOIA**
**3. Maila**
Katu Kale - Ostadar (zapatua, 18:15)

**WATERPOLOA**
**Euskal Herriko 1. Maila**
Claret Askartza - Urbat (zapatua, 15:00)
**Nesken Euskal Herriko 1. Maila**
Getxo - Urbat 3H (domeka, 14:15)
KADETEAK
**Euskal Herriko Liga**
Fortuna - Urbat Urk. (zapatua, 17:15)
INFANTILAK
**Euskal Herriko Liga**
Lautada - Urbat Urk. (zapatua, 11:00)



AGURTZANE INTXAURRAGA
(Hika antzerkia)

# "Abiapuntua Bernarda Alba da, baina Euskal Herrira eta gaur egunera ekarria"

"Koadernoa Zuri" Hika Teatroren antzezlanik berriena Coliseoan ikusteko aukera izango da abenduaren 14an, 20:30ean. Itziar Ituño, Nagore Aranburu eta Miren Gojenola antzezleak protagonista dituen euskerazko lana ezagutzen dutenek "La casa de Bernarda Alba" ezagunaren parekoa dela diote. Agurtzane Intxaurraga Hika antzerki taldearen zuzendariaren ustez, emakumeen istorio unibertsala kontatzen duen antzezlana da. Sarrerak 8 euro balio du.

*- Nola sortu zenuten "Koadernoa Zuri" antzezlana? Eta zein da izenburuaren esanahia?*

Hitz-jolasa da. Alde batetik, zuri, amari, protagonistetako batek idazten dion koadernoa daukagu, eta, bestetik, urtetan zuri egon den koaderno bat da, esan ezin izan diren hitzez betetzeko prest. Ikusleei koaderno zuri bat eskaini eta hura betetzeko gonbita egiten diegu, hori da asmoa. Denok daukagu barruan bizi izan dugun zerbait, gurekin daramaguna, hitzen bidez adierazteko gai izan ez garena.

*- Zein da kontatzen duen istorioa?*

Hiru emakumeren istorioa kontatzen du lanak. Protagonista nagusiak bi alaba dira. Ohe ondoko mahaitxoan betidanik izan dudan Garcia Lorcaren Bernarda Alba antzezlana da abiapuntua, baina Euskal Herrira eta gaur egunera ekarria. Euskal Herrian ere egon badaudelako Bernarda asko. Emakume zikiratzaileak, zorrotzak, fededun itsuak eta, alaben ama direnez, alaba horiek bide zuzenetik eramateko lana hartu dutenak. Arantxa Iturbek eta biok idatzi dugu gidoia. Arantxak berak proposatu zidan gure istorio propioa eraikitzea, Bernarda horiek abiapuntutzat hartuta. Alabengan zein arrasto utzi duten kontatu nahi genuen. Zein askatasun daukan norberak bere bidea eraikitzeko eta guk, gurasook, zein eskubide dugun gure seme alaben bidea eraikitzeko.

*- Nolakoak dira protagonistak?*

Antzezlanean agertzen diren bi alabetako bakoitzak bere bidea aukeratuko du. Amak, euren arteko zubia izan beharrean, amildegi bat sortuko du, eta kartzela horri aurre egiteko modu desberdinak aukeratuko dituzte. Batek erabakiko du giro horretan ito egiten dela, eta borrokaren bidea aukeratuko du. Besteak, aldiz, obedientziaren bidea hartuko du. Hogei urteren buruan, elkar topatuko dute amaren etxean, ama hil ostean, eta gauza asko gertatuko dira hor.

## Exfibar, domekara arte egongo da zabalik

**Aurreko asteburuan zabaldu zuten Portalean Arrate Filatelia Elkarteak** antolatutako Exfibar XLVII. Seilu erakusketa. Aurten Eibarko raketistei eskaini dioten erakusketa domekara arte egongo da ikusgai, gaur 18:00etatik 20:00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12:00-etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.







## Franz & Martin-ekin, pop-rock doinuak gaur Koskorren

**Gaur, gauerditik aurrera kontzertua emango dute Franz & Martin bikoteak** Koskor tabernan. Alfred Crespo (Franz) eta Martin (Jose Mari Ruiz) arrasatearrek pop-rock musikako klasikoen bertsioak joko dituzte, hainbat gitarra tartekatuta emango duten kontzertuan: besteak beste, David Bowie, Nick Cave, Michael Jackson, Neil Young, Pink Floyd, Led Zeppelin, Bee Gees eta beste hainbaten kantak eskainiko dituzte.



## Harixa Emoten, Joxe Mari Iturralderekin

**Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa klubaren hurrengo saioa** abenduaren 13an izango da, 19:00etan Portalean. Egun horretan Joxe Mari Iturralderen "Perlak, kolpeak, musuak, traizioak" liburuari buruz jardungo dute berbetan. Aztergai izango duten nobela hori XX. mendean bizi izandako eta pisu astunetan nazioarteko arrakasta lortu zuten bi boxeolari gipuzkoarren gainekoa da: Paulino Uzkudun (Errezil) eta Isidoro Gaztañaga (Ibarra).

## "Gotas" aurkeztuko du Iratxe Gimenezek

**Iratxe Gimenez Hermosa eibartarrak "Gotas", bere lehen liburua** aurkeztuko du abenduak 14an, 19:00etan Portalean (ikastaro gelan), Felix Morquecho kazetariak aurkeztuko duen ekitaldian. Egileak berak dioen moduan, liburuan jasotakoak *"eguneroko bizitzan sortzen diren txispen inguruko istorioak dira"*. Hiru atal nagusitan dago banatuta: "Gotas" (12 kontakizunek osatzen dute), "Gotas extrañas" (beldurrezko bost ipuinekin) eta "Gotitas" (azken honetan umeendako bi ipuin sartu ditu egileak).







## Deporreko argazkilarien erakusketa

**Abenduaren 9an zabalduko ditu ateak Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek** gabonen bueltan Portalean egin ohi duten erakusketa kolektiboa. Urtarrilaren 8ra arte, Bakarne Elejalde, Jose Ignacio de Castro, Jose Luis Irigoien, Juan Ignacio Aizpurua, Juan Antonio Palacios, Pedro Arriola, Virginia Arakistain, Mikel Urionaguena, Enrique Lorenzo, Jose Vila, Jose Valderrey, Zigor Astigarraga, Oskar Baglietto, Juan Manual Lucena, Enrique Albistegi, Fernando Retolaza, Einer Rodriguez eta Fernando Alonsoren lanak ikusteko aukera izango da, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

## Jesus Belaustegi Topalekuan

Abenduaren 9tik 18ra Jesus Belaustegi eibartarraren "Xumetasunaren Xarma" izenburuko erakusketa hartuko du Topalekuak. Zeramika eta egur lanak ikusi nahi dituenak ohiko erakusketa ordutegiaren barruan izango du horretarako aukera.




## Valenciaga Memorialeko irabazleak

Aurtengo Valenciaga Memorialeko VII. argazki leihaketako sari banaketa aurreko zapatuan, Txistorraren Egunean egin zuten Eibarko Txirrindulari Elkartekoek: bilduma onenari saria Federico Cuencari eman zioten eta argazki onenari saria, berriz, Enrike Albistegiri. Argazkian ikusten duzuen moduan, Moises Artaetxebarria elkarteko presidentearen eskutik jaso zuten saria biek.



## "Mannequin challenge" lehiaketa

Parrapasa Eibarko taldeak ''Antxintxiketan'' izenburuko bideoa aurkeztu du Gaztearen "Mannequin challenge" lehiaketara. Ikusi nahi baduzue interneten sartu (eitb.eus/eu/gaztea/mannequin-challenge) eta han aurkituko duzue, lehiaketara aurkeztutako beste lanekin batera.

## Sostoaren otarra

Aurreko zapatuan Sostoa abesbatzak zozketatu zuen otarraren irabazlea 4774 zenbakia izan da. Jabeak abenduaren 15era arteko epea izango du jasotzeko, bestela erreserbako zenbakiarentzat (4028) izango da.






## Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da gaur eta bihar

**Bihar Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dela-eta, Eibarko euskalgintzak,** Udalaren babesarekin, hainbat ekitaldi antolatu ditu. Egitarauari herriko ikasleek ekin diote, gaur goizean Untzagan martxan egon den Mintzodromoan. Arratsaldeko 17:30etik 19:30era, berriz, Euskararen Lorategia osatzeko ekitaldia egingo da. "Euskeria erein, zaindu, emon" goiburua duen horma-irudia betetzeko bi mila loretik gora beharko dira, eta hala nahi duten herritarrek eskura izango dituzte horma-irudian jartzeko. Loreak bertan egiteko aukera ere izango da. Behin horma-irudia osatuta, eta "Loretxoak" abestiarekin dantza egin eta gero, Txaltxa Zelaiko goiko aldean jarriko da, hainbat egunetan ikusgai egon dadin. Eta bihar "Andonik mugitzen nau" erromeriarekin dantza egiteko aukera izango da, 18:00etatik aurrera Untzagan dagoen karpan.



## "Itsaspeko Bihotzak", 12tik 23ra

**Galtzagorri Elkartearen eskutik, abenduaren 12tik 23ra "Itsaspeko Bihotzak" hartuko du** Portaleak (martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era). Iaz ere martxan egon zen areto literario honetan genero berdintasunaren gaia lantzen da, euskarazko haur literaturaren bitartez. Erakusketa batez ere LH-ko 4. mailako haurrek bisita gidatuak egin ditzaten pentsatuta dago, baina bestela ere, helduek eta familiek ere bertako liburuak eta artelanak ikus ditzaten, erakusketa aretoaren ordutegian zabalik egongo da.



## Lasergunera irteera

**Abenduaren 17an Bilboko Lasergunera joateko aukera izango dute** DBH-ko 1. eta 2. mailako ikasleek, Astixak antolatutako irteerari esker. Izena emateko epea abenduaren 4ra arte egongo da zabalik, www.astixa.eus webgunean (15 euro). Dauden plazak baino eskaera gehiago egonez gero zozketa egingo dute eta bilera informatiboa abenduaren 13an izango da, 17:30ean Indianokua gaztelekuan.

## Euskarazko produktuen katalogo berria prest

**Haur eta gazteentzako ehunka produktu biltzen dituen euskarazko produktuen** katalogo berria prest dago paperean zein interneten eta herriko ikastetxeetan banatzen hasita daude. Asmoa merkatuan aurki daitezkeen euskarazko produktuak erabiltzaileen eskura modu erraz batean jartzea da eta Euskal Herriko 140 bat udal eta mankomunitatetako Euskara Zerbitzuk ematen dute argitara. Osotara eraberritu den katalogoa.eus webguneak 6.000 produktu baino gehiagoren erreferentziak biltzen ditu jada eta paperezko edizioak, berriz, atalka antolatutako produktuen hautaketa bat jasotzen du: musika, DVD-filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako materiala.




San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

www.kolorlan.com 667 54 89 16 (Ritxar)
KOLORLAN
PINTURAK

## Pil-Pileanen urteurren ospatzen SORALUZEN

Soraluzeko Pil-pilean Euskara Elkartearen 20. urteurrenaren egitarauaren barruan, eta Euskeraren Egunarekin bat eginez, "Ametsa Bidea: ekimen euskaltzalearen bilakaera Soraluzen XX. eta XXI. mendeetan" izeneko erakusketa inauguratuko da bihar, zapatua, 13:15ean Plaza Berrian. Ondoren, kantu bazkaria antolatu dute kiroldegiko frontoian. 19:00etan "Euskarak 365 egun" ekitaldi nagusia egingo da Plaza Barrian eta 22:30ean Ruper Ordorikaren kontzertua hartuko du Antzokiak.



## "Muñeca de porcelana" ERMUKO antzokian

Abenduaren 9an Ermuko Antzokian "Muñeca de Pocelana" antzezlana ikusteko aukera izango da, 22:15etik aurrera. Juan Carlos Rubiok zuzentzen duen lana honetan, jubilatzear dagoen aberats batek (Jose Sacristan) inolaz ere espero ez duen telefono deia jasoko du.




## Herrixa Dantzan berezia abenduan ELGETAN

Elgetako Kafe Antzokiak hartzen duen Herrixa Dantzan saioa berezia izango da abenduan: hileko azken domekan ez dute dantzaldirik antolatuko (Gabon Eguna da eta) eta, horren ordez, abenduaren 9an folk dantzaldia emango du Kataluniako Escamot Català taldeak, 20:30ean hasita. Jan eta edateko aukera ere izango da, Eko Taloak enpresaren talo goxoak tartean. Sarrera doakoa izango da.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




# hildakoak

- **Amparo Rodriguez Gonzalez.** 91 urte. 2016-XI-25.
- **Juan Manuel Rios Rodriguez.** 91 urte. 2016-XI-29.
- **Dolores San Ildefonso Bengoa.** 90 urte. 2016-XI-30.

# jaiotakoak

- **Naia Lopes Garcia.** 2016-XI-21.
- **Lore Gutierrez Araujo.** 2016-XI-23.
- **Lore Abantzabalegi Zamakola.** 2016-XI-24.

## telefono jakingarriak

| | | | |
|---|---|---|---|
| SOS deiak | 112 | Mendaro osp. | 943 03 28 00 |
| Pegora | 010 | Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 | Torrekua | 943 03 26 50 |
| Portalea | 943 70 84 39 | Errepideak | 902 11 20 88 |
| Udaltzaingoa | 943 20 15 25 | Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 | Eusko Tren | 902 54 32 10 |
| Debegesa | 943 82 01 10 | Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| KIUB | 943 20 38 43 | Pesa | 900 12 14 00 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 | Taxiak | 943 20 30 71 |
| Iberdrola | 901 20 20 20 | | 943 20 13 25 |
| Naturgas | 902 12 34 56 | Alkohol.Anon. | 629 14 18 74 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 | Al-Anon/Alateen | 650 26 59 63 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 | | |

# farmaziak

Barixakua 2
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
Zapatua 3
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Domeka 4
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Astelehena 5
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
Martitzena 6
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
Eguaztena 7
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
Eguena 8
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
Barixakua 9
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
Zapatua 10
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Domeka 11
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Astelehena 12
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
Martitzena 13
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
Eguaztena 14
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Eguena 15
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Barixakua 16
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI -2016AN-
**Iraundegi** (Calbeton, 19)

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 5 | | | | 7 | | 4 |
| | | | | | 8 | 5 | 2 | |
| | 7 | | 2 | | | | | |
| | | 1 | | | 3 | | 9 | |
| 6 | | | 9 | | 2 | | | 8 |
| | 3 | | 5 | | | 6 | | |
| | | | | | 1 | | 4 | |
| | 6 | 3 | 8 | | | | | |
| 7 | | 9 | | | | 3 | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 7 | 9 | 2 | 6 | 4 | 8 | 3 | 1 |
| 2 | 4 | 6 | 3 | 1 | 8 | 9 | 5 | 7 |
| 1 | 3 | 8 | 9 | 5 | 7 | 6 | 4 | 2 |
| 7 | 1 | 4 | 5 | 6 | 3 | 2 | 9 | 8 |
| 3 | 9 | 2 | 8 | 7 | 1 | 5 | 6 | 4 |
| 8 | 6 | 5 | 2 | 4 | 9 | 7 | 1 | 3 |
| 9 | 2 | 3 | 1 | 8 | 6 | 4 | 7 | 5 |
| 6 | 8 | 7 | 4 | 3 | 5 | 1 | 2 | 9 |
| 4 | 5 | 1 | 7 | 9 | 2 | 3 | 8 | 6 |

AURREKOAREN EMAITZA

## Barixakua 2

**EUSKARAREN EGUNA**
**17:30/19:30.** Euskararen loratedia osatzea. Untzagan.

**LUDOTEKA**
**18:00.** "Euskararen bila" (8-11 urte bitartekoentzat). Doan. Jazinto Olabeko ludotekan.

**ZINE-FORUM**
**19:00.** *"La fuente de las mujeres"* (Pagatxa eta Defibel elkarteek antolatuta). Sarrera librea. Portalean.

## Zapatua 3

**EIBAR LAB'S**
**12:00.** *"Margo eroalearekin Street Art-a"* tailerra. 14 urtetik gorakoentzat. Biharrian espazioan (Ubitxa 16-18).

**KIROLA FAMILIAN**
**17:30/19:30.** Udazken-neguko asteburuetan umeek jolasteko gune irekia HHko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

**EUSKARAREN EGUNA**
**18:00.** *"Andonik mugitzen nau"* umeentzako dantzaldia. Untzagan (karpan).

**UMEENDAKO ZINEA**
**18:00.** *"Ice Age. El gran cataclismo".* Doan. El Corte Inglés-ean (ekitaldi aretoan).

## Domeka 4

**SANTA BARBARA**
**10:30/13:00.** *"Santa Barbararen burrundara"* umeentzako tailerra.
**10:00, 11:00 eta 12:00**etan: Arma biltegira bisita gidatua (gazteleraz). Ate Irekien jardunaldia. Armagintzaren Museoan.

**KIROLA FAMILIAN**
**17:30/19:30.** Udazken-neguko asteburuetan umeek jolasteko gune irekia HHko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

## Astelehena 5

**IKASTEN**
**16:00.** Sendabelarren foroa: *"Asta matza eta moskatxa edo boskoitza".* Portalean.

## Eguaztena 7

**EIBARKO KANTUZALEAK**
**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Zapatua 10

**IKASTAROA**
**10:00/13:00 eta 16:00/19:00.** Argazkilaritza ikastaroa: *"Estudioko argiztapena".* Portalean.

## Domeka 11

**KIROLA FAMILIAN**
**17:30/19:30.** Udazken-neguko asteburuetan umeek jolasteko gune irekia HHko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

## Martitzena 13

**IKASTEN**
**10:00.** *"Lenguaje cinematográfico"*, Pedro Saldañaren eskutik. Armeria Eskolan.

**BILERA**
**17:30.** Bilboko Lasergunera antolatu duten irteerari buruzko bilera informatiboa. Indianokua gaztelekuan.

**TAILERRA**
**18:30.** *"Historia de mujeres"* literatura tailerra: Maria Lejarraga. Portalean.

**HARIXA EMOTEN**
**19:00.** Idazlearekin Harixa Emoten: Joxe Mari Iturralderen *"Perlak, kolpeak, musuak, traizioak".* Portalean.

## Eguaztena 14

**IKASTEN**
**09:50.** Ibilaldia: San Prudencio (Bergara)-Oñati. Irteera Ego Gainetik.

**LIBURU AURKEZPENA**
**19:00.** *"Gotas"*, Iratxe Gimenez Hermosak idatzitakoa. Portalean (ikastaro gelan).

**EIBARKO KANTUZALEAK**
**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**ANTZERKIA**
**20:30.** *"Koaderno zuria"* (Hika). 8 euro. Coliseoan.

## Eguena 15

**IKASTEN**
**10:00.** *"Un año despues de Aylan"*, Javier Galparsororen eskutik. Armeria Eskolan..

**KALEETAN KANTUZ**
**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

## Erakusketak

**Abenduaren 4ra arte:**
– IMANOL LARRABEITIREN margoak. ***(Untzagako Jubilatu Etxean)***
– EXFIBAR 2016 XLVII. Seilu erakusketa -ordutegi berezia-. ***(Portalean)***

**Abenduaren 31ra arte:**
– JOSE LUIS IRIGOIENEN "India" argazkiak. ***(El Corte Ingles-ean)***

**Abenduaren 9tik 18ra:**
– JESUS BELAUSTEGIREN "Xumetasunaren xarma" zeramika eta egur lanak. ***(El Corte Ingles-ean)***

**Abenduaren 9tik urtarrilaren 8ra:**
– KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN argazkiak. ***(Portalean)***

**Abenduaren 12tik 23ra:**
– GALTZAGORRI ELKARTEAREN "Itsaspeko Bihotzak" berdintasuna lantzeko literatur aretoa. ***(Portalean)***

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**

laztanak emoten...
943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



Zorionak, KERMAN, gaur lau urte egitten dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AINHOA, domekan zazpi urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JONE, etxeko sorgintxuak gaur hiru urte betetzen dittu-eta. Patxo potolua famelixa guztiaren eta, batez be, Patxi nebaren partez.



Zorionak, MADDI, gure printzesak domekan lau urte beteko dittu-eta. Musu potoluak etxekuen partez.



Zorionak, TELMO! Bixar lau urte egingo dozuz!! Egun bikaiña pasau, maittia. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARKEL, mutil haundi, gaur sei urte egitten dozuz-eta. Musu haundi bat aitta eta amaren partez. Maite zaittugu!



Zorionak, JANIRE, hillaren 7xan zortzi urte beteko dozuz-eta. Famelixako guztien partetik.



Zorionak, PAUL, zure lehen urtebetetzian. Famelixaren eta, batez be, Manex-en partez.



Zorionak, OIHAN, atzo zortzi urte bete zenduazen-eta. Famelixakuen partez.



Zorionak, JUNE, hillaren 10ian 10 urte egingo dozuzelako. Famelixaren partetik.



Zorionak, SAIOA, hillaren 8xan 11 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa eguna. Lagunen partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**3an: 19:45, 22:30**
**4an: 20:00**
**5ean: 20:30**

### "Marea negra"
*Zuzendaria:* Peter Berg




**(2 ARETOAN)**
**3an: 17:00 (An), 19:45, 22:30**
**4an: 17:00 (Antzokian), 20:00**
**5ean: 20:30 (Antzokian)**

### "Igelak"
*Zuzendaria:* Patxo Telleria




**(ANTZOKIAN)**
**3an: 17:00 (1), 19:45, 22:30**
**4an: 17:00 (1 Aretoan), 20:00**
**5ean: 20:30 (2 Aretoan)**

### "Los últimos de Filipinas"
*Zuzendaria:* Salvador Calvo




**(2 ARETOAN)**
**3an: 17:00**
**4an: 17:00**

### "Cuervito Calcetín"
*Zuzendaria:* Sandor Jesse



# iragarkilaburrak


1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA
2.1. Salgai

3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan

4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak



943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus


Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Etxebizitza salgai, aldamenean duen lokala etxebizitzari emateko baimenarekin. 2 logela, sukaldea eta komuna. Berrizteko. 90 m². Tel. 605-716777.

– 42 m²ko mobil-homea salgai Bañaresen (Errioxa). Teilatu bikoitza. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna dutxarekin. 30 m²ko terraza toldoarekin. Aire egokitua. 25.000 euro, negoziagarriak. Tel. 688-801329.

### 1.2. Errentan

– Neska arduratsuak hiru logelako pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.

– Logela alokagai Eibarren, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tel. 695-716229. Amaia.

– Buhardilla edo apartamentu txikia hartuko nuke alokairuan. 1 edo 2 logelakoa. Tel. 602-377921.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Taberna traspasatzen da Ipuruan, foballzelaiaren bidean. Tel. 680-871529 eta 943-256110.

### 3.2. Errentan

– 18 urtetik gorako gazteentzat aukerako lokala alokagai. Ondo prestatutakoa. Tel. 600-890245.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 615-394820.

– Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 658-458061.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-988471.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta dendari jarduteko. Tel. 632-426847.

– Neska euskalduna eskaintzen da astebururetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.

– Eibarko emakume arduratsua eskaintzen da goizez edo ordu solteetan administrazio lanak egiteko. 10 urtetik gorako eskarmentua. Tel. 658-845081.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-546032 eta 669-179522.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak (baita ospitalean ere) zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 688-959575.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-572229.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-227800.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 661-001246.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 605-303657.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 658-158036.

– Emakumea eskaintzen da 15:00etatik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 654-304337.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-533729.

– Emakumea eskaintzen da arratsaldez eta gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 689-003537.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 664-357381.

– Gizona eskaintzen da kamioia gidatzeko, garbiketak egiteko eta zinpeko zaintzaile jarduteko. Tel. 666-655269.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta dendan jarduteko. Tel. 632-426847.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-193518.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 680-808125.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Externa. Tel. 634-256471.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Interna. Tel. 631-221729.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-420183.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-488692.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 695-347162.

– Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko etab. Tel. 658-458061.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskolara eramateko. Tel. 691-606774.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauez ere) eta garbiketa lanetarako. Tel. 629-817299.

– Mutila eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiei laguntzeko. Tel. 629-817299.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 632-139806.

### 4.2. Langile bila

– Sukalde-laguntzailea behar da Eibarko taberna batean. Tel. 639-792203.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Gitarra klaseak hartuko nituzke. Interesatuak whasappez jarri kontaktuan. Tel. 606-576386.

### 5.2. Eskaintzak

– Fisika, Matematika eta Kimikako klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez lau laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.

– Irakaslea den neska euskalduna eskaintzen da IH eta DBH mailetan klase partikularrak emateko. Tel. 699-495279.

– DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloetako Matematika, Fisika, Kimika, Kontabilitatea eta Ekonomia klase partikularrak ematen dira. Tel. 685-739709.

– LHtik DBH 2. mailara arteko ikasleei zuzendutako klase partikularrak ematen ditut. Tel. 616-690620.

## 6. Denetarik

### 6.3.Galdu/Aurkitu

– Aurreko asteburuan pailazoek eskaini-tako emanaldietan honako gauzak jaso genituen bertan: Volkswagen bateko giltzak (Udaltzaingoan laga genituen), aterkia, mantatxoa, umearen karrorako euriarentzako estalkia eta mobila kargatzeko entxufea. Tel. 943-200918.


Aldatzea jarrera bat da.
Irabaztea gozamena.
Tucson
16.900€
#changeisgood
ABC 2016
Hyundai Tucson Berria.
2016 urteko auto
onena Espainian.
Aldaketaren alde egin genuen eta irabazi egin dugu. Sari handi bat lortu dugu: 2016 Urteko Auto Onena izatea Espainian. Auto handi batendako saria, baina batez ere jarrera batendako. Hyundai Tucson Berrian apostu desberdina ikusi dutenei esker.
Esperimentatu aldaketaren indarra www.hyundai.es helbidean
HYUNDAI
NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.
OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80
Hyundai Tucson Gama:
CO2 Emisioak (gr/km):
119-175. Kontsumo mistoa
(1/100 km): 4,6-7,5


ERNE
"SD EIBAR" BIRUSA HEDATZEN ARI DA...
EIBARRERA ABONATU
Eta PRIMERAKO AFIZIO BAT kutsatu
Informatu zaitez: www.sdeibar.com/abonatuak edo 943 201 831
SDEIBAR
#kutsatuzureafizioa

bista eder
clinica dental - hortz klinika

# Asko dira
## gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

innovadental
Clinicas

www.**innovadentalclinicas**.com

RPS: 53/13

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

bista eder
clinica dental - hortz klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**
mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com
www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

innovadental [ Azpeitia clínica dental - hortz klinika ]

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**
mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com
www.innovadentalclinicas.com